

Haxe da Villabonako Udalak 2012an antolatutako bertso eta ipuin lehiaketako argitalpena. Ez daude hemen aurkeztutako lan guztiak, baizik eta, epaimahaikideen ustez, lanik txukunenak direnak. Hala eta guztiz ere, Villabonako Euskara eta Hezkuntza Batzordeak lerro hauek baliatu nahi ditu esker ona adierazteko lanen bat aurkeztu duten ikasle guztiei, ahalegin horretan lagundu dieten irakasleei eta bertso eta ipuin guztiak irakurtzeko eta juzkatzeko lana eta ardura hartu duten epaimahaikideei.

Nork daki, argitalpen xume honetan ikusten dugun izenen bat bihar-etzi plaza handiagoetan ikusteko aukera izango dugu.



LH 3, 4 eta 5, 6 mailak



DBH 1 eta 2 mailak



DBH 3 eta 4 mailak

BERTSO IPUIN LEHIAKETA 2012

BERTSO SARIDUNAK

LH 3-4

- 1 ▶ **Udaberria** ▶ Maddi Ormaetxea Zaldua (*Jesusen Bihotza*)
- 2 ▶ **Oporrak** ▶ Oier Loidi Garmendia (*Jesusen Bihotza*)
- 3 ▶ **Aste Santua** ▶ June Yugueros Olamusu (*Jesusen Bihotza*)

LH 5-6

- 1 ▶ **Urtaroak** ▶ Naroa Iraola Arregui (*Fleming*)
- 2 ▶ **Afrika** ▶ Lur Irazusta Marcos (*Fleming*)
- 3 ▶ **Umezurtegia** ▶ Lierni Larrañaga Laskurain (*Fleming*)

DBH 1-2

- 1 ▶ **Nire lehenengo parranda** ▶ Janire San Sebastian (*Erniobea*)
- 2 ▶ **Ehiza** ▶ Lander Mujika (*Erniobea*)
- 3 ▶ **Amonak** ▶ Maddi Otegi Mujika (*Erniobea*)

DBH 3-4

- 1 ▶ **Gaur egungo egoera** ▶ Leire Olazabal Arrastoa (*Erniobea*)
 - 2 ▶ **Ernioko bidea** ▶ Martin Lizardi (*Erniobea*)
 - 3 ▶ **Maitasun giltzapetua** ▶ Ane Geresta Azurmendi (*Erniobea*)
- AB ▶ **Aitona** ▶ Amaia Aizpurua Saizar (*Jesusen Bihotza*)
- AB ▶ **Droga munduan** ▶ Iñigo Otaegi Etxezarreta (*Jesusen Bihotza*)

BERTSO IPUIN LEHIAKETA 2012

IPUIN SARIDUNAK

LH 3-4

- 1 ▶ **Eguzkia eta bere lagunak** ▶ Mattin Etxeberria (*Jesusen Bihotza*)
- 2 ▶ **Zoritxarra datorkigu mundura** ▶ Joane Ugarte Amonarriz (*Fleming*)
- 3 ▶ **Iker eta piraten altxorra** ▶ Alain Jimenez Gonzalez (*Jesusen Bihotza*)

LH 5-6

- 1 ▶ **Anek erloju bat nahi du** ▶ Olaia Ugarte Amonarriz (*Fleming*)
- 2 ▶ **Erresuma** ▶ Nagore Arruabarrena Uzkudun (*Jesusen Bihotza*)
- 3 ▶ **Zulo ezkutua** ▶ Lander Gartzia Arana (*Fleming*)

DBH 1-2

- 1 ▶ **Lagunik gabeko otsoa** ▶ Kimetz Urkola Lavado (*Jesusen Bihotza*)
- 2 ▶ **Kaixo Amona** ▶ Ane Galarza Etxeberria (*Erniobea*)
- 3 ▶ **Okerreko trenera igo nintzeneko pasarte** ▶ Shrabani Aranzabe Pita (*Erniobea*)

DBH 3-4

- 1 ▶ **Etorkizuna** ▶ Olaia Gorostidi Cabezas (*Erniobea*)
- 2 ▶ **Egiaren heriotza** ▶ Unai Iparragirre Quilez (*Erniobea*)
- 3 ▶ **Amodiozko gutuna** ▶ Naroa Balda Garmendia (*Jesusen Bihotza*)

LEHEN HEZKUNTZA

3. ETA 4. MAILAK

BERTSOAK

“Udaberria”

Maddi Ormaetxea Zaldua.....6

“Oporrak”

Oier Loidi Garmendia7

“Aste Santua”

June Yugueros Olamusu8

IPUINAK

“Eguzkia eta bere lagunak”

Mattin Etxeberria9

“Zoritxarra datorkigu mundura”

Joane Ugarte Amonarriz 11

“Iker eta piraten altxorra”

Alain Jimenez Gonzalez..... 14



Udaberria



Maddi Ormaetxea Zaldua

Kukuaren kantuak
sortzen du irria
tximeleten dantza ta
erleen ezta
lorenz ta zuhaitz berdez
jazten da herria
poz-pozik hartzen degu
guk udaberria.



Oporrak



Oier Loidi Garmendia

Oporretara goaz
Nafarro aldera
familia guztia
ondo pasatzera.
Amona ta aitona
Zeuden han itxoiten
Etxearen kanpoan
Guri kasu egiten
Segituan atera
Genituen maletak
Gure arropa eta
Etxeko trasteak
Egun guztian ondo
Pasatzen genuen
Gure raketarekin
Frontoian jolasten



Aste santua



June Yugueros Olamusu

Aste Santuan joan naiz
leku askotara,
mendirra, kanpinera
eta hondartzara.
Familia ta lagunak
juntatu egin gara,
ederki pasa degu
puntatik puntara.



Eguzkia eta bere lagunak



Mattin Etxeberria

Bazen behin eguzki bat zeruan bakarrik bizi zena. Lagunik ez zuenez oso triste zegoen.

Udako egun batean eguzkia Lurreko gizakiak, animaliak... berotzen hasi zen. Orduan jendea hondartzara joan zen. Helduek eta hurrek hondartzan gauza asko egiten zituzten: gazteluak egin, igerian ibili, surfean ibili... Eguzkiaren beroari esker, jendea jolasean oso pozik ibiltzen zen. Eguzkia ere oso pozik zegoen bere beroarekin jolasten zutelako eta lagunak egin zituelako.

Baina udazkena heldu zenean umeak ikastolan hasi ziren. Eguzkia berriro ere lagunik gabe geratu zen. Orduan haizeari galdetzea bururatu zitzaion:

–Nahi al duzu nire laguna izan?

–Bai! –erantzun zion haizeak.

Eta elkarrekin jolasten hasi ziren. Eguzkiak haizea berotu zuen eta Hego haizeak zuhaitzetako hostoak lurrera botatzen zituen. Udazken osoa pasa zuten elkarrekin jolasten Eguzkiak, haizeak eta hostoak.

Baina zuhaitzetako hosto guztiak erori zirenez, zuhaitzak hostorik gabe geratu ziren. Hego haizea beste leku batzuetara joan zen. Eguzkia berriro bakarrik eta triste geratu zen.

Orduan elurra hasi zuen. Baina elur gutxi egin zuenez negua aspertuta zegoen.

Hurrengo egunean, eguzkiak elurra asper-asper zegoela ikusi zuen eta galdetu zion:

–Nahi al duzu nire laguna izan?

–Bale!

–Baina baldintza batekin: gaur elur asko egitekotan!

–Bai, bai, lasai!

Eta eguzkiak esan bezala neguak egun hartan elur asko egin zuen. Eta elkarrekin jolasten hasi ziren: elurrak elurrezko panpinak egiten zituen eta eguzkiak urtu. Horrela jolastu ziren negu osoan.

Baina elurrak egun gutxi iraun zuen. Ondoren euria etorri zen. Udaberria iritsi zen.

Eguzkia berriro ere lagunik gabe, bakarrik zegoenez, galdetu zion euriari:

–Nahi al duzu nire laguna izan?

–Bai! Zure laguna izango naiz!

Eta elkarrekin jolasten hasi ziren. Bakoitzak bere indarra atera zuen. Eguzkiak bere beroa eta euriak bere zaparradak. Ondoren konturatu ziren bien arteko indarrak batuta ortzadarra sortzen zutela. Oso pozik jolasten zuten elkarrekin.

Handik aurrera urtaro bakoitzean lagun berdinak etortzen zitzaizkion eguzkiari elkarrekin jolasteko: udan, jendea; udazkenean, haizea eta hostoak; neguan, elurra; eta udaberrian, euria eta ortzadarra. Eguzkia oso zoriontsu bizi izan zen betirako.



Zoritxarra datorkigu mundura!



Joane Ugarte Amonarriz

Bazen behin txerri arraro bat, Joxepo izenekoa eta arrosa kolorekoa. Ez zekien gimnasia egiten asko jaten zuelako eta potolo geratu zelako. Baina egunak pasa egunak etorri gaixotu egin zen buruko minez, tripako minez, ipurdiko minez eta belarriko minez.

Denak geratu ziren beldurtuta, bere ama ezik, negarrez geratu zela susto handi horrekin. Joxepo oso larri zegoen, ia hil zorian. Bitartean, bere anaiak Joxepilio, Joxepa eta Joxezakar basoan zebiltzan perretxikoak, loreak eta abar biltzen.

Orduan, amak deitu egin zion Joxepiliori eta esan zion Joxepo hil zorian zegoela. Joxepiliok, Joxepa eta Joxezakarri honen berri esan zien. Joxepilio negarrez hasi zen, oso negartia zelako; eta Joxepa, mareatu eta botaka hasi zen. Hrrrelakoa izan zen beti eta Joxezakar haserretu egin zen bere kokotz handiarekin.

Orduan. Joanewoman etorri zen, baina oso traketsa zenez lokatzetara erori zen eta hanka puskatu zuen. Gero anbulantzia etorri zen eta Joanewoman eramane zuten.

Egun bat pasa zuen ingresaturik.

Bitartean, Joxepok ezin zuen gehiago aguantatu kakagurea baina amak ez zion uzten, ze ipurdiko mina zuen eta azkenean soinean egin zuen. Azkenean etorri zen Joanewoman, baina berandu Joxepok ia kaka eginda zuen soinean.

–Agur Joxepo! Paketittoa aldatu beharko dizugu! –Esan zuen...

–Mua, mua, mua –Hasi zen negarrez...

Bapatean purrut puzkar bat atera zitzaion. Ah! denak harrিতuta geratu ziren. Ze ondo! Joxepo ez zegoen hilda!!

Pozaren pozez joan ziren denak etxera. Eta berriro etorri zen Joanewoman; baina, kontuz kontuz zebilen, ze ez zuen nahi lokatzetara erori berriro.

Orduan Joanewoman 2.na agertu zen eta Txinakoa zenez hizkera arraro honetan esan zien:

–Oo uhach sing inde mamuani and ching. (zer gertatzen da?) Inork ez zion ulertu; baina Joanewoman 1. ulertu zion eta erantzun:

–Wuacha cincaga mochala.

Joanewoman 2.nak erantzun:

–Ja ja ja Joxepo ipurdi mini papil garbi con zakrata contadaraminikaga ipurdi gardi papil garbi.

Eta oraingoan denak ulertu zien eta Joxepok erantzun euskaraz:

–Aizu nik beti garbitzen det ipurdia, eee!

Joanewoman 1ek eta 2.nak parra egin zuten:

–Ja jaja jeje ji ji jojo ju ju.

Bat-batean, Shhhhhhh! Joxeporen anaia lo zegoen! Ah! Denak harrituta geratu ziren. Oraingo honetan: jro xxxx jro xxxx. Denak parrez geratu ziren.

–Bai???na?? Joxepa pixka bat haserre zegoen. Denek esaten zioten?:

–A ze koleta itsusia.

Eta Joxezakarri:

–A ze kokotz handia.

Eta Joxepiliori:

–A ze malko politak.

Joxezakar eta Joxepa haserretu egin ziren eta plan bat pentsatzen hasi ziren.

–Ah ah, badakit. Esan zuen ahots eztiz Joxepak. Eta Joxezakarri esan zion:

–Begira, gu hemen gaude eta Joxepilio han. Orain egin behar duguna da... beregana joan zuhaitzetik zuhaitzera, eta gero bere negar malko horiek kendu.

–Nola?

–Ba, operatu egingo diogu begietatik eta malkoa erakartzen duen makina kendu eta beste norbaiti jarri. Erantzun zuen.

Joxeporen laguntza behar zuten beregana joan ziren. Baina, beraien ama oso kezkatuta zegoenez 14:30 etortzeko eskatu zien. Ba ez ziren etorri, zeren, 14:30 geratu ziren planari ekiteko. Ama geroz eta kezkatuagoa zegoen Joxepiliorretaz, ez zuen negar egiten eta. Hori oso arraroa zen. Adibidez, esaten bazioten meriendatzeko ez zeukala txokolaterik, negarrez hasten zen. Baina, egun horretan gauza berdina esan zioten eta parrez hasi zen. Oso arraroa zen. Baina, ba al dakizue ze pertsonari jarri zioten negar egiteko makina? Ba, erraza da. Beraien aitonari jarri zioten, beti txisteak kontatzen ari zelako.

Amak pentsatu zuen Joxepilio medikutara eramatea. Han esan zioten zeukala *cocatxuria*.

–*Cocatxuria* da? –Ba oso erreza da. *Cocatxuria* da baratxuria. Ezetz. *Cocatxuria* da erraza, ez duela negar egiteko aparatua.

Joxepilio operatu behar zutela esan zien. Ordu 1 geroago Joxepiliok bere aitona ikusi zuen. Beraien aitonari esan zioten negar egiteko bi aparatua zeukala eta horri deitzen zitzaion “cralo poizioa”.

Orduan esan zuen mediku neskak:

–Joxepilio mesedez, etorri.

Joxepilio operatu eta gero aitonari deitu zioten eta mediku neskak esan zion:

–Aitona mesedez, etorri.

Operatu eta gero biei mediku batek esan zien:

–Aizu barkatu. Ni Ana naiz. Gauza bat utziko didazue esaten?

Eta biek erantzun:

–Bai!!!!!!!!!!!!

Eta Anak esan zien beraien buruan kamara bat zegoela eta errudunak nor-tzuk ziren ikusten zen. Eta berriro biek batera:

–Nortzuk dira?

Eta Anak erantzun zien:

–Zure anaiak Joxepa, Joxepo eta Joxezakar eta zure ilobak attona!

Biak haserre haserre etorri ziren etxera eta 3rak Joxepa, Joxepo eta Joxezakar 2 aste zigortu zituzten telebista ikusi gabe. 2 aste pasa ziren eta Joxepak, Joxepok eta Joxezakarrak aitonari eta Joxepiliori barkamena eskatu zieten. Bronka ederra jaso ondoren 3rei barkatu zieten.

Geroago afalordua zen eta amak Joxepiliori esan zion:

–Gaur afaltzeko zopa dago.

Eta negarrez hasi zen eta aitonari esan zioten ez kontatzeko txisterik. Baina kontatu egin nahi zuen.

–Ea gustatzen zaizuen. Esan zuen aitonak.

Aitona txistea kontatzen hasi zen:

Familia arteko ezkontzak

Patxiku txikik bere adiskideei:

–Nire familia ez dira batere normalak.

–Zergatik?

–Ezkontzen diren guztiak, familia artekoen artean ezkontzen direlako.

–Etzak esan!

–Pentsa aitona amonarekin, izeba osabarekin, ama aitarekin...

Aitonak bukatu zuen txistea.

–Gustatu zaizue txistea?

...

Ba, imajinatu aitonak egunero txiste berdina kontatzen zuela, ia buruz zekiten.

Joxepok oso gutxi jan zuen egun pila horietan eta gimnasia egiten hasi zen. Potroan saltatzea erabaki zuen. Eta hara! Ah, ze zortea! Sekulako saltoa egin zuen ia ia zeruraino. Azkenik txiribuelta bat zeruan eta lurrera jetzi zen eta tente-tente gelditu zen. Denak txalo zaparrada pilo bat bota zituzten, lore sortak eta ia gauza guztiak.

Handik aurrera Joxepo kirolari famatua izan zen eta kopa eta domina asko lortu zituen.



Iker eta piraten altxorra



Alain Jimenez Gonzalez

Bazen behin Iker izeneko mutil bat, lau egun barru bere urtebetetzea izango zena. Gosaltzerakoan, zerealen kaxan, mezu bat topatu zuen eta horrela esaten zuen:

“Adi! Mezu hau irakurtzen duenak, pirataren altxorra lortzeko lehenengo pista topatu du: altxorra maskorraren hirian aurkitzen da”.

“Bigarren pista, Kasino Zaharraren atzeko aldeko iturrian topa daiteke”.

–Zein izango ote da maskorraren hiria? –galdetzen zion Ikerrek bere buruari. Orduan gurasoei galdetu zien eta ez zeukaten ezta ideiarik.

Orduan interneten “La Concha” jartzea bururatu zitzaion. Donostiako hondartzaren argazki bat agertu zen, beraz maskorraren hiria Donostia zen.

–Zein da Kasino Zaharra? –Donostiako turismo web orrian sartu zen eta ez zegoen ezer.

Gero amonari galdetzea bururatu zitzaion:

–Amona, ba al dakizu non dagoen Kasino Zaharra?

–Bai, gaur egungo Donostiako Udaletxea da.

Ikerrek gurasoei Donostiara joan nahi zuela esan zien.

Udaletxearen atzeko aldean iturri bat dago. Bertan Ikerrek plastikozko botila baten barruan mezu bat topatu zuen, hau esaten zuen pistak:

“Haizeak bere ileak orrazten dituen lekuan txoriekin jolasean dago hurrengo pista”.

“Kontuz, itsasoaren arnasak busti zaitzake”.

Ikerrek gau osoa pasa zuen erantzunaren bila.

Goizean ikastolara joan behar zuen, eta ia egun osoa pasa zuen burua galdu-rik. Etxera bueltatu zenean, interneten begira ibili zen eta bertan “Haizearen Orrazia” izeneko obra artistiko bat zegoela jartzen zuen. Ikerrek bere amonari eskatu zion bertara eramatea.

Itsasoa harro zegoen eta olatuak “Haizearen Orrazia”ren ondoan, egindako zulo batzuetatik ura presio handiarekin botatzen zuten. Iker, pistaren bila zebilen eta halako batean ura bere gainean erori zen eta blai eginda geratu zen. Non ote zegoen pista?

Bere inguruan begiratzean ez zuen ezer ikusten. Iturrian lortutako mezua berriro irakurri zuen eta pista txoriekin jolasean zegoela irakurri zuen.

Orduan goraka begiratu zuen eta kometa bat ikusi zuen, kometa harri bati lotuta zegoen.

Bere indar guztiekin jaitzi egin zuen eta kometak mezu berri bat zeukala ikusi zuen.

Amona eta Iker etxera itzuli ziren. Bertan dutxatu eta goxo-goxo jarri ondoren, Iker pista berria irakurri zuen, eta horrela esaten zuen:

“Duela urte asko Piratak Donostia utzi zuten, baina beraien altxorra itsas-argiaren irlan dago, eta igotzen den eskailerako azkenengo eskaloian dago altxorra”.

Hurrengo egunean Ikerren urtebetetzea zen. Etxean opari mordo jaso zuen, baina berak beste gauza bat zuen buruan.

Arratsaldean bere gurasoei Donostiara joan nahi zuela esan zien. Bertan Santa Klara irlan itsas-argi bat dago.

Irlara joateko txalupa bat ateratzen da orduro eta bat-batean Iker eta bere familia joan ziren. Itsas-argira igotzeko eskaileretatik korrika igo zen, azkenengo eskaloia iritsi zenean inguruan begiratu zuen. Landare batzuen atzean kaxa bat ikusi zuen. Kaxaren barruan X-box-360 bat zegoen. Istorio guztia Ikerren gurasoen ideia bat izan zen.

Ikerrek besarkada handi bat eman zien eta poz-pozik etxera bueltatu ziren denak urtebetetzea ospatzera.

LEHEN HEZKUNTZA

5. ETA 6. MAILA

BERTSOAK

“Urtaroak”

Naroa Iraola Arregui 17

“Afrika”

Lur Irazusta Marcos 18

“Umezurtegia”

Lierni Larrañaga Laskurain 19

IPUINAK

“Anek erloju bat nahi du”

Olaia Ugarte Amonarriz 21

“Erresuma”

Nagore Arruabarrena Uzkudun 23

“Zulo ezkutua”

Lander Gartzia Arana 24



Urtaroak



Naroa Iraola Arregui

Urte osoak ditu
hamabi hilabete
urtaro bakoitzak du
zerbait diferente.

Lau urtaro daude ta
izen bat bakoitzak
batzuk bereak dira
ta besteak hortzak.

Negua hotza da ta
udara beroa
bien artean dago
aldea nahikoa

Uda ta udazkena
nahiz bizi desberdin
biak maite ditut ta
aukeratu ezin.



Afrika



Lur Irazusta Marcos

Afrikan dagoena
a ze pobrezia!
hara joatea izan zen
nire esperientzia
Leopardoak ikusita
a ze elegantzia
Pozik joango nintzake
berriz Tanzania.

Ondoren egun batzuk
pasaz Zanzibarren
Ur garden horietan
pozik buzeatzen
Maskor pilo batekin
itzuli baikinen
Ea bueltatzen naizen
berandu baino lehen



Umezurztegia



Lierni Larrañaga Laskurain

Ni hemen azaldu nintzen
ume batzuen alboan
nik airea hartu nahi dut,
ta behingoz hemendik joan
nahiko denbora hemen naiz
etxea dut nik gogoan
ume normala naiz eta
zoritxarra dut ondoan
tristetahun, mesprezuak,
gorrotoa dut malkoan
hemen asperturik nago
ta triste egun osoan
ni etorri nintzenetik
ez dut ezer poltxikoan
aita ta amarik gabe
triste da oraingoan

Toki hau isila da ta,
irrifarrik gabekoa
andereño itsusi bat
aurpegian du granoa
sudurra erraldoia du
ez dago zorrotzagoa
azkenean ohituratzen
joaten beharrekoa
lagun batzuk egin ditut
Ainara eta Ainhoa
beti ametsetan gaude
"ea hemendik banoa"
umezurztegia ez da
uste nun bezalakoa
amesgaizto baten sartuta
naiz gaizto edo zintzoa



“Anek erloju bat nahi du”



Olaia Ugarte Amonarriz

Orain dela lau urte, bazen neskatxa bat Ane izeneko Japonian.

10 urte zituen, ile horia zeukan, begi marroiak, nahiko altua...

Egunero joaten zen aitona bere bila, oso harreman ona zeukaten biek.

Egun batean, eskolatik atera eta gero, erloju dendatik pasa eta erloju bati begira geratu zen Ane.

–Erosiko al didazu erloju hori aitona?

–Bai, baina lehenengo gauza bat erakutsiko dizut. –erantzun zion aitona–

Eta hor joan ziren biak eskutik helduta poz-pezik.

Herriko plazara iritsi zirenean, Anek esan zuen:

–Aitona zergatik dabilta denak korrika eta presaka?

Eta aitona esan zion:

–Konturatzen zara denak erlojua daukatela? Ba, horregatik dabilta denak korrika.

Eta Anek esan zion:

–Aitona begira Patxi!

–Kaixo Patxi, zer moduz?

Patxik erantzun zuen:

–Beno agur, musika eskolara noa, presaka nabil.

–Ongi da, agur!

Orduan esan zuen hirugarren pertsona batek:

–Korri Laida, hemendik minutu batzuetara datorrela autobusa!

Gero, esan zuen besteak:

–Lanera noa, berandu noa eta!!

–Ondo da, agur!...

Aitona, niri begiratu eta parra egiten zidan. Ni txundituta nengoen.

–Ikusten duzu, nola dabilen jendea presaka?

Esan zion Anek:

–Bai aitona! –erantzun zion Anek

Eta orduan esan zion aitona Aneri:

–Orain nahi al duzu erlojua, Ane?

–Ez aitona, ez dut nahi erlojurik, nahiago dut presaka ez ibili eta orain arte bezala jarraitu.

Eta ipuinak esaten duen bezala, Anek ez zuen inoiz erloju bat eduki.

Erloju gabe ere oso ondo bizi zaitezke, ez al da hala? Beste bat arte lagunak!



Erresuma



Nagore Arruabarrena Uzkudun

Behin Meri izeneko txantxangorri bat eta bere erresuma dotorea zuhaitz batean bizi ziren, eta zuhaitzari ez zitzaizkion hostoak hazten.

Behin Meri bere erresuma ikustera atera zen, bidean loreak bildu zituen bere gela apaintzeko. Meri izan ezik, txantxangorriak ez ziren enborretik ateratzen.

Herri hartan ez zuen inoiz eguraldi txarrik egiten, beraz, hango txantxangorriek ez zekiten zer zen eguraldi txarra egitea. Baina egun batean, trumoi hotsa entzun zuten eta beldurtu egin ziren. Ondoren, tximistaren argitasuna eta azkenik, euria hazi zuen. Denak harriturik zeuden.

Zer ote da bustitzen duen gauza hau?

Bost egun pasa ziren, baina euria ez zen gelditzen. Herri horretako jakintsuari ideia bat bururatu zitzaion. Herriko jostunei deitu eta zuhaitzarentzat txapel handi bat egitea. Meriri ondo iruditu zitzaion. Jostunak segituan hasi ziren josi eta josi zuhaitzarentzat. Laster bukatu zuten txapel handia. Oso polita atera zitzaion, gainera berdea zen eta hostoak ziruditen, baina orain zuhaitzaren buruan jartzea zen lan zailena. Beraz, herriko eskalatzaileri deitu zioten. Bera oso pozik jarri zen berak ere parte hartu behar zuela jakin zuenean. Segituan sokak hartu eta eskalatzen hasi zen. Txapela ipini zuen, baina jaisterakoan, erori egin zen. Orduan denak larritu ziren, segituan herriko sendagileari deitu zioten eta ezer larririk ez zuela esan zuen, beso bat hautsita zuela.

Merik afari eder bat prestatzeko agindu zien sukaldariei eta horrela denak gustura eta goxo-goxo afaltzera joan ziren.

Handik aurrera ez ziren gehiago busti.



Zulo ezkutua



Lander Gartzia Arana

Baziren behin bi lagun, Inuk eta Yukon, Alaskan bizi ziren. Whitehorsetik gertu herri txiki-txiki batean. Inukek 8 urte zituen eta Yukonek 7 urte. Inukek begi marroiak zituen eta ile marroia. Yukonek berriz begi beltzak zituen eta ilea ere beltza zeukan.

Egun batean, biak arrantzara joan ziren. Yukonek gauza disdiratsu bat ikusi zuen eta gertugotik ikustera joan ziren. Gero, beste gauza bat eta beste bat, azkenean zulo batera iritsi ziren gauzak jarraitzen. Orduan konturatu ziren gauza disdiratsu horiek urre pipitak zirela. Pozez gainezka jarri ziren, baina esan zuten sekretupean gordeko zutela. Egunero egunero joaten ziren zulatzera. Egun batean, barrura sartu eta galdu egin ziren. Gose zeuden eta nekaturik, eta han geratu ziren lotan.

Hurrengo egunean, aurrera jarraitzea pentsatu zuten. Asko ibili eta gero, argi txiki bat ikusi zuten eta hara joan ziren. Bapatean, New Yorkeko metroko zuloan atera ziren. Beldurturik, hainbeste jende ikusita, lehengo zuloan aurrera jarraitzea pentsatu zuten. Asko ibili eta gero, beste argi txiki bat ikusi zuten. Orduan, hara joan eta Perun atera ziren (Machu Pichun). Han altura handian zeuden eta buruko mina jarri zitzaien eta aurrera jarraitzea pentsatu zuten. Asko ibili eta gero, beste zulo txiki bat ikusi zuten eta Egipton atera ziren (Piramideetan). Bero handia egiten zuen eta gainera turista asko zeudenez, aurrera jarraitzea pentsatu zuten. Asko ibili eta gero, beste argi txiki bat ikusi zuten eta hara joan ziren, Txinan agertu ziren (Harresian).

Momentu horretan, zulotik atera eta ibili eta ibili ziren. Harresia bukatzen ez zenez, zulora bueltatzera pentsatu zuten. Asko ibili eta gero, beste argi txiki bat ikusi zuten. Alaskan zeuden!! Inuk eta Yukonek berriz ez zirela zulo ezezagunetan sartuko esan zuten eta zuloa itxi eta etxera joan ziren.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila Goizuetako plazan.

DBH

1. ETA 2. MAILA

BERTSOAK

“Nire lehenengo parranda”

Janire San Sebastian.....26

“Safaria”

Lander Mujika28

“Amonak”

Maddi Otegi Mujika29

IPUINAK

“Lagunik gabeko otsoa”

Kimetz Urkola Lavado30

“Kaixo Amona”

Ane Galarza Etxeberria32

“Okerreko trenera igo nintzeneko pasarte”

Shrabani Aranzabe Pita33



Nire lehenengo parranda



Janire San Sebastian

Herriko plazan 10etako,
Taxia hartu parrandarako.
Lehenengo aldiz noa Hernanira
Garaia badudalako. (bis)
10 euro taxirako,
Ta bestea tragotako,
Krisia gaur gauerako.
Jende artetik iritsi ezinik,
"4 zurito aterako?"
Amak eman dit, 20 € ta
Etxean hiruretako! (bis)

Mugi gaitezen taberna hontatik
Ez al daukagu musika hoberik!
Goazen horrea gorputza maitu
Ta hartuko degu tragorik (bis)
Bat bestearen atzetik,
Mozkortu egin behar det nik
"Ez al da jotzeun alkoholik!"
Lagunak alde egin didate
Ta utzi naute bakarrik
Erlojuari begiratu ta
"Ordubik dira oraindik!" (bis)

Tabernak itxi, hau zoritxarra!
Jada ikusten ditut bi barra!
Kalean nago bakar bakarrik,
Piztu zait barruko arra (bis)
eta hasi zait negarra,
"Ama!" oroipen bakarra.
Hau da parranda baldarra
Taxia pasa ta ezin hartu
Edana baitet pattarra.
Patrika hutsa, erdi moxkorra
Ta hemen gelditu beharra!. (bis)



Safaria



Lander Mujika

Azken astean notizia bat
zaigu hona allegatu
errege jauna Afrika aldean
omen dute harrapatu
hartu eskuetan bi fusil
ta elefanteak hil
eta kadera puskatu
gure dirua zertako duen
ez al da argi geratu?

Safari baten laguntzarekin
Afrikan aberats sorta
riflearekin apuntatuaz
nora ez dio inporta
bufalo ta elefante
gizona elegante
horrenbeste ehiza mota
hobe zen elefanteak utzi
eta erregea bota.



Amonak



Maddi Otegi Mujika

Bat etxera egunero
Etortzen zan garaiz
Ni atian bere zain
Beti irri alaiz
Kondaira politten bat
Kontatzen zidan maiz
Bere hitz goxo hoi
Ondorioa naiz

Beste amona berriz
Sukaldari ona
Beti niretzat zuen
Platerik goxona
Medikura eraman
Edo josi gona
Beti laguntzeko prest
Daukagu amona

Amonak izan ditut
Bigarrengo amak
Txikitatik zaintzera
Etorri diranak
Azten ezinezkoak
Beraien laztanak
Ez dakit nola eskertu
Jasotako danak



Lagunik gabeko otsoa



Kimetz Urkola

Bazenekiten, txanogorritxuren ipuinean, hiru txerritxoenean eta zazpi antxumeen istorioan azaltzen den otsoa, otso bera dela? Orain kontatuko dizuet zer gertatu zitzaion behin batean otso horri.

Duela urte asko otsoak inor jatea lortzen ez zuela eta gainera denek alde egiten ziotela ikusirik, jubilatuta eta mendiko etxe txiki batera joan zen bizitzera, bertan barazkiak landatu eta saltzen zituen eta gainera berak jateko balio zioten zeren otsoa belarjalea zen medikuak kolesterol altua zuela esan zionetik.

Egun batean otsoa bere facebookeko profila begiratzen ari zela ohartu zen bere urtebetetzea laster izango zela.

–Nire urtebetetzea laster denez festa bat antolatu beharko dut.

Facebookeko gonbidapenari erantzuten ez ziotenez, otsoa hiru txerritxoentxera joan zen pertsonalki gonbidatzera.

Motozikleta zahar berdea etxearen alboan aparkatu ondoren hiru txerritxoentxeko atea jo zuen.

–Kaixo otsoa naiz, irekiko didazue atea mesedez? Nire urtebetetze festarako gonbiteak ekartzera nator.

–Kar kar kar, benetan uste duzu gezur hori sinestuko dizugula? Benetan sartu nahi baduzu sartu tximiniatik azken aldian bezala eta ikusiko duzu zelako jakuzzi goxoa prestatu dizugun kar kar kar !

–Ez benetan ari naiz, zuen laguna izan nahi dut.

–Gezurria! Joan zaitez pikutara! Zure erruagatik batera bizitzera behartuta gaudela!

Otsoak tristeturik bere motozikleta hartu eta txanogorritxurengana joan zen, honek baietz esango ziolako esperantzaz.

–Tok-tok otsoa naiz nire urtebetetze festara gonbidatzera nator, nahi baduzu zure amona ere etor daiteke.

–Ez! Ezagutzen zaitut eta badakit zure trikimailuetako bat dela ni eta nire amona jateko. Gainera nire amona Benidorrera joan da ehiztariarekin oporretan.

Dagoeneko bi etxe eta otsoaren gonbidatu zerrendak hutsik egoten jarraitzen zuen.

Azkeneko esperantza zuen zazpi antxumeengan.

–Kaixo lagunak? Otsoa naiz , nire urtebetetze festara gonbidatu nahi zaituztet.

Pailazoak eta guzti egongo dira.

–Ez pentsa pailazo batzuegatik arriskatuko garela zure tranpan erortzen.

–Zergatik inork ez nau sinetsi nahi? Egitan esaten dizuet jarrera aldatu dut orain jan orde zuen laguna izan nahi dut.

Otsoa dagoeneko negarrez etxera joan zen penaturik. Onartu beharra zuen, bere gaztetako jarrera okerraren ondorioz ez zuela lagunik eta orain bakarrik bizi beharko zuela betirako, eta are okerrago! Kandelak inoren konpainia gabe itzali!

Baina egun hartan imajina ez zezakeen zerbait gertatu zen, Txanogorritxuren Scooter dotoreak matxura bat izan zuen hiru txerritxoek lan egiten zuten tabernaren parean, eta ez bazen nahikoa zazpi antxumeak bertan zeuden bazkaltzen. Horrela, bakoitzari gertatutakoa kontatu zioten elkarri.

–Agian, egitan ari zitzaigun otsoa eta gure laguna izan nahi du. –esan zuen Txanogorritxuk.

–Arrazoi duzu, nik uste dut benetan aldatu dela eta urtebetetze festa bat merezi duela.-proposatu zuen txerritxo batek.

Denak ados agertu ziren ideiarekin eta urtebetetze festa eder bat prestatze-ari ekin zioten.

–Baina zer egiten duzue hemen? –galdetu zuen otsoak harriturik bere urtebetetze egunean etxera iritsi zenean.

–Zorionak otso!

–Benetan nire urtebetetzea ospatzera etorri zaretela?

–Bai, hala da, zatoz ongi pasatzera!

–Mila esker lagunok!

Festa bikaina antolatu zioten handik aurrera bere lagunak izango zirenek, DJ eta guzti! Gainera, zeinek imajina zezakeen txerritxoek zelako martxa zuten, ai seu tu pegoaren koreografia osoa zekiten!



Kaixo amona



Ane Galarza Etxeberria

Kaixo amona:

Zer moduz dena? Badakit denbora asko pasa dela azkenekoz ikusi zintudanetik, baina oso lanpetuta ibili naiz denbora guzti honetan: eskola dela, atletismoa, musika...

Baina egia esan, hori ez da izan arrazoi bakarra. Nire gurasoek zentro horretan sartu zintuztenetik ez zaitut ikusi, nire gurasoek esaten didatelako hori ez dela ni bezalako ume bat egoteko tokia, baina nolakoa da zu zauden lekua? Zer dago bertan? Nolakoak dira zurekin dauden pertsonak? Ondo zaintzen al zaituzte? Galdera horiek denak darabiltzat buruan egun osoan amona, baina inork ez daki erantzuten. Ez dakit zergatik gainera... Nik zu zauden lekua handia dela imajinatzen dut, bakoitza bere gelarekin, baita jangela batekin ere, bazkaltzeko eta afaltzeko, eta baita egongela erraldoi bat ere telebista eta sofarekin. Gustura zaudela bertan pentsatu nahi dut eta lagunak egin dituzula. Eta guk etxean zainduta baino hobeto zaintzen zaituztela han.

Zure falta handia sumatzen dut, zure ipuinak eta kontakizunak gogoratzen ditut gauero, zure sehaska kantak eta olerkiak, zuk egindako bufanda janzen dut hotza egiten duenean eta zutaz oroitzen naiz Mikel Laboaren abestiak entzutean. Ez dakit gutun hau zuregana iritsiko den, baina espero dut nire maitasuna zuregana iristea. Laster ikusiko zaitudan esperantzarekin nago amona, besterik gabe maite zaitut.

Zure biloba Maitane.



Okerreko trenera igo nintzeneko pasartea



Shrabani Aranzabe Pita

*Hezkerraurre 22, Livanto 29842,
1940eko maiatzaren 1a, astelehena*

Lagun maitea:

Hemen gerran gaude eta gu, alegia, umeak tren batzuetan sartzen gaituzte. Nik, horietako pasarte bat kontatu nahi dizut.

Behin, gerra hegazkinak, bonba bat bota behar zutela geure herrian ohartarazi gintuzten. Orduan, esan zuten ume guztiak tren batzuetan sartu behar zirela beste herri batzuetara eramateko. Baina, ni nola oso despistatua naizen, beste ilara baten erdian jarri eta tren ezberdin batean sartu nintzen, gerrara zuzenezuzenean joateko. Bertan, soldadu asko zeuden, baina, ez pentsa oso jostagarria zenik hori, zeren hasten zinen gogoeta egiten, eta Arraioa gerrara noala!! Gainera, trenean sekulako usain txarra zegoen, nabaritzen zen bertako soldadu horiek ez zirela dutxatu bi hilabeteetan gutxienez!

Iritsi ginenean leku hartara, nik ez nekien non nengoen, leku ezezaguna zen, nekien gauza bakarra, hori ez zela geure herria. Ni oso izututa nengoen, edozein bazterretatik, edozein unetan soldadu batek tiro bat jotzea zeukalako. Baina, adoretuarena egiten saiatu nintzen.

Bat-batean, trenetik jaitsi zen soldadu batek besotik heldu ninduen. Nik berak ezer esan baino lehenago, badaezpada ere, negarrez hasi nintzen eta berak, leku seguru batera eraman ninduen. Ai ama, zer nahaspilan sartu naizen! pentsatu nuen. Soldaduak galdera batekin dena argitu zuen.

Galdetu zidan:

–Zer egiten duzu hemen?

Eta nik erantzun nion:

–Izan ere, trenez nahastu naiz eta beste herri batera joan beharrean gainerrako umeekin batera, hona etorri naiz.

Gau hartan, soldaduak gela horretan geratzeko agindu zidan. Hurrengo egunean, nire herrirako tren bat hatzeko. Gauean, ez nuen oso ondo lo egin. Oso kezkatuta nengoen. Eta norbait sartzen bazen gela hartan eta fusilatzen ninduen? Edo... Nik zer dakit!!

Hurrengo egunean, nekatuta nengoen, ez nuelako lorik egin.

Ez dakit nola nagoen bizirik oraindik!! Izan ere, gela hartako atetik atera nintzen momentuan, nire muturren aurretik bala bat igaro zen. Hasieran, lasai gelditu nintzen baina gero pentsatu nuen: Ai ama!!! ia-ia bala horrek hil egin nau!!!

Orduan, soldadua etorri zen nire bila trenera igotzeko, baina, gerra zelai erditik igaro behar genuen. Ni hasieran oso beldurtuta nengoen, baina, ibiltzen gindoazen neurrian konfiantza nireganatzen hasi nintzen. Konfiantza hori segituan joan zitzaidan, zeren eta, zelai erdian geundela, ni babesten ninduen soldaduari bala batek, burua zeharkatu zion. Soldadua, hilda lurrera erori zen eta orduan, korrika hasi nintzen niri berdina ez gertatzeko.

Azkenean, tren geltokira iritsi nintzen, ez dakit nola, baina osorik. Tren geltokian, bi tren zeuden eta eskerrak biak nire herrira zihoazela, bestela, beste pasarteren bat edukiko nuen zeuri kontatzeko

Eta zuk? Zein pasarte dituzu niri kontatzeko? Gustatuko litzaidake zuk beste eskutitz batean, zeure pasarteren bat kontatzea.

Besterik gabe agurtzen zaitut. Muxu handi bat, matte zattut.

DBH

3. ETA 4. MAILA

BERTSOAK

“Gaur egungo egoera”

Leire Olazabal Arrastoa36

“Ernioko bidea”

Martin Lizardi39

“Maitasun giltzapetua”

Ane Geresta Azurmendi41

“Aitona”

Amaia Aizpurua Saizar43

“Droga munduan”

Iñigo Otaegi Etxezarreta45

IPUINAK

“Etorkizuna”

Olaia Gorostidi Cabezas48

“Egiaren heriotza”

Unai Iparragirre Quilez.....50

“Amodiozko gutuna”

Naroa Balda Garmendia56



Gaur egungo egoera



Leire Olazabal Arrastoa

Gaur egun krisiarekin
Gogorra da egoera:
Langabezia, ezinegon,
Manifestazio, greba,
Nor ote dugu erantzulea?
eguneroko galdera
argi dena da ez dela etorri
egun batetik bestera
infernuari amaierarik
ezin ikusi ostera.

“Kaixo epaile” lehenengo hitzak
hankak ari ziren dantzan
nire biziko momenturikan
gogorrena hura baitzan
"queda__ señora desahuciada"
geratu nintzen zalantzan,
pentsamenduak derrepentean
jarri zitzaizkidan martxan,
baina borroka egin nahi nuen
argiaren esperantzan.

10 urtean bizi_izan nintzen
Erreginaren modura
baina 2 urte ostean jaitsi
Behar izan dut mundura
Bankuek behar baino gehiago
Eman zidaten eskura
Aberats baten gisara biziz
Sentitzen nintzen gustura
baina_hipoteka menpean zegon
Ustez nirea zen hura.

“Kaixo epaile” lehenengo hitzak
Ni bankuko ordezkari,
Epaitegiko gela handian
Tentsioa zen nabari,
oso zaila da begiratzea
Etxe gabe dagonari
bankuak ezin dio erantzun
Ordaintzen ez duenari,
Lehen begiratu behar zenion
Zure etorkizunari.

Badakit jarri dugula diru
Asko jendearen esku
Baina gehienak azaldu dira
Dena onartzeko prestu
Horrek behartzen ditu gaur egun
Galtzak ipintzera estu
Libre den arren ezin daiteke
Nahi den guztia amestu
Ta lehen hartu den erabakiak
Atzera bueltarik eztu.

Denbora luzez egonak gara
Amets batean sartuta
Bizi, izan gera begi aurrean
Estalki beltza lotuta
Eguneroko ohiturak orain
Nola utzi? Nola uka?
zoriona ta dirua zaie
askori batera buka
baina aurrera egin behar da
momentu txarrak ahaztuta.



Ernioko bidea



Martin Lizardi

Nire gelako leihotik
ikusten dut hortxe bertan
ilun kolorekoa da
ia egun gehienetan
gris-txuria tartekatzen
da ere bere hormetan
gorriska ere jartzen da
udako arratsaldetan
Ernio mendia da hau
ta ez nabil ametsetan
jaio nintzenetik bizi
naiz eta bere itzaletan
Alkiza nire herria
berarekin da zorretan
berak babesten bai gaitu
neguko egun hotzetan

Gaur lagunekin pentsatu
det goraino joatea
hauei iruditu zaie
plana interesatea
beatzitan plazan zita
motxila guztiz betea
aitaren tortillarekin
ura ta txokolatea
Areta ta Itzuregi
lortu atzean uztea
izerdian ikusten da
aldapa hauen nekea
Zelatuna iritsita
benga!azken etapea
ederra baina gogorra
zera Ernio maitea



Maitasun giltzapetua



Ane Geresta Azurmendi

Ziega honexen iskin batean
zuri idazten jarrita
amets gaizto hau ez da bukatzen
begi biak irekita
beti bezela luzatzen dizut
bidaia baten gonbita
ene laztana egin zaidazu
ahalik azkarren bisita
hobe kalean izango balitz
gu bion hurrengo zita.

Betidanikan izandu zera
ene bihotzeko kuttun
zu ez bazaude nire ondoan
dena bihurtzen da ilun
nahiz ta estatu espainiarrak
distantziz banatu gaitun
momentu batez ere ez daukat
bihotza zugandik urrun
zu bezainbeste maite dudarik
besterik ez dago inun.

Zenbat sentipen eta zirrara
zu aurrean zaitudala
negar-zotinka irudikatuz
maitasun honen itzala
Euskal Herritik hona etortzea
ez da ez gauza makala
ukabilkadaz apurtu nahi dut
banatzen gaitun kristala
nik zu maitatzen zaitudalako
Euskal Herria bezala.

Ene laztana berehalaxe
nahi dut zurekin elkartu
ta kristalaren beste aldetik
begiradaz musukatu
maitasun honen berotasunaz
barrote guztiak urtu
zuk eta biok Euskal Herria
mugarik gabe maitatu
ta ni bezela preso daudenak
euren etxera bueltatu.



Aitona



Amaia Aizpurua Saizar

Bihotz handiko gizona gendun
Guztion arten maitea
Gogoko zuen mendia, baratza
Eta denetik jatea
Haize bolada itxusi batek
Emana zion kolpea
Okertzean pilatzen joan ziren
Tristura eta nekea
Sufrimendutik askoz harago
Bila dezala pakea
Ezinezkoa egingo zaigu
Aitona zu ahaztea

Egun hartan ikusi zintudan
Argala eta goibela
Aurrera jarraitzeko indarra
Galdu bazenu bezela
Gaixotasunean nabigatzen
Galduta da marinela
Ikusi arte goxo batekin
Utzi nuen zure gela
Esaldi horrexek piztu zuen
Esperantzaren kandela
Esan ohi dute galtzen azkena
Gure esperantza dela

Gaurko honetan ene aitona
Zu ekartzean gogora
Konturatu naiz ohartu gabe
Joan zaigula denbora
Baina orain denbora kontuan
Ezin gaitezke aztora
Denboraren trena ere noizbait
Nonbaiten geldituko da
Tren parada horretan aitona
Zu igo zaitezen gora
Eta zure bizi osorako
Etorriz nire albora



Droga munduan



Iñigo Otaegi Etxezarreta

Orain dela hiru urte exkax
penak hasi zitzaizkiten
lagunak ia egun guztitan
probatzen hasiak ziren
Beñato jada ari zitzaiten
probatzeko erregutzen
ta ni "nobato" gisan jun nintzan
ta tranpan erori nintzen
hainbat porro ta drogarekin gu
elkarren arten zorutzen
"hautsaren" eraginak ondoren
ikaragarriak ziren
konturatu gabe putzuaren
hondoraino sartu nintzen

Astebetean hiru bat aldiz
juten nintzen parrandara
kiston atxurra harrapatuta
tabernatik tabernara
denen aurrean pena emanez
motibatuta dantzara
gaupasa egin ta lokalera
nindoan lasai lotara
hurrengo egunen etxeratu
gurasok hor zeuden ara
biak kezkatuta nei begira
sortzen zitzaaien dardara
nik ere ez dakit nola kristo
iritsi nintzen hortara

Nere buruak pentsatzen zuen
ya eman ditut bi urte
benetan urte gehiegi dira
nik behintzat det hori uste
droga hartzeak ekarri dizkit
hainbat pena, buruhauste
lagunek ta nik drogak hartzea
ya! Utzi behar genuke
horretaz aparte familiai
ematen hainbat ezuste
drogek gizakiaren burua
txikituta uzten dute
denbora gutxira pasa dena
superatzea nahi nuke

Droga mundutik alde egin nun
hori egin zen bukatu
droga zikiñak nere mundutik
egin ziren ezkutatu
bukatzeko gauza txiki batzuk
in behar ditut aitortu
"hautsa" probatzeagatik tonto
puska naizela onartu
drogarengatik inozo modun
egin nintzen ni portatu
akatsik ez tetela egin nik
ezin dizuet ukatu
pasa zaidana pasa ta gero
eztet gehiagorik hartu.



Etorkizuna



Olaia Gorostidi Cabezas

Gau hura besteak bezalakoa izan zen. Horretan ere, Karmelek tristuraren tristuraz egin zuen negar. Beti egiten zuen eskolan handitan ea zer izan nahi zuen galdetzen zioten bakoitzean. Isilik geratzen zen, eserita, geldirik, eskuak bere indar guztiekin estutzen, ez zuen erantzunik eta horrek, sabela erretzen zion sentsazio bat eragiten zion eta gehienetan, egia esan, beti, beti bukatzen zuen begiak malkoez bustirik. Gelako beste guztiek bazuten erantzuna, ikasle erdiek, maisuak, medikuak edo abokatuak izan nahi zuten eta berak, oraindik ez zekien ezer, hamar urte zituen eta garrantzi handiagoa ematen zion beste edo-zer gauzari.

Bere gurasoek, ordea, ez, ez zuten alaba bakarra gau guztietan negarrez ikusi nahi eta horregatik asteburu oso bat amonaren etxera eraman zuten, ea horrela, pasatzen zitzaion. Iritsi ziren, amona Luisaren baserrira. Frantziko mugan eta Karmele han utzita etxera bueltatu ziren, igandean bazkalorduan bere bila berriz joatekotan.

Gau hartan, amonak han gertu zegoen sorgin bati buruz hitz egin zion, etorkizunaren sorgina deitzen zioten. Libia zuen izena eta galdera bat egitean, honek proba bat ezartzen zizun, eta betez gero, galdera horren erantzuna ematen zuten. Istorio hura entzun ondoren, Karmelek lasaitasun handiz hartu zuen lo, hurrengo goizean mendira irten, Libia bilatu eta handitan zer izango zen galdetzeko asmoz.

–Zer izango naiz handitan? –galdera hori bere buruan zebilen bueltak eta bueltak ematen eta azkenean, erantzuna aurkituko zuen.

Hurrengo goizean, oso azkar jaiki zen ohetik eta azkarrago gosaldutik, amonak ez zuen goiz hartan ikusi ere egin.

Abiatu zen mendian gora, ea nora joan behar zuen ere jakin gabe, baina azkenean, lortu egin zuen.

Etxe zaharra, ia kolorerik gabea, inor bizi ez zela ematen zuen, beldur pixka bat ere ematen zion, baina etorkizunean zer izango zenaren jakin minak edozein beldur ezaba zezakeen. Orduan sartu zen, poliki-poliki, hanka puntetan.

–Kaixo, Libia?

–Sartu, sukaldean nago, azkeneko atea -esan zuen ahots ezezagun batek.

–Zera, galdera bat egin nahi nizuke, etorkizunean zer izango naizen jakin nahi dut...

–Pentsa dezagun... bai, badaukat, badago lore bat, segituan antzemango duzuna, beltza da eta puntu zuriak ditu, erantzunen lorea, baina ez da edozein tokitan hazten, ikusten duzu hango mendi gailurra? –galdetu zion sorginak, leihotik mendia erakusten zion bitartean.

–Joango naiz bila eta ekarriko dizut.

–Itxaron, jakin beharra duzu, lore horrek, lurretik ateratzen duzun momentutik ordu erdira bakarrik erantzuten diela galderei, oso azkar joan beharko duzu bila...

–Eta egingo dut!

Karmele ziztu bizian joan zen mendian gora. Iritsi zenean, lorea galtzetako ezkerreko patrikan sartu zuen eta sorginaren etxerantz egin zuen lasterka berriro, arnasestuka jo zuen Libiaren etxeko atea eta lorea eman zion, nekearen nekez lurrera bota baino lehen. Orduan, sorginak irribarre egin eta inoiz ahaztuko ez dituen hitz batzuk esan zizkion.

"Ez dago inongo erantzunen lorerik, lore arrunta dat, honekin lortu nahi nuen gauza bakarra edozer lor dezakezula erakustea da, gaztea zara oraindik, zein lanbide edukiko duzun jakiteko, gaur erakutsi duzun indarrarekin, nahi duzuna izan zaitezke."



Egiaren heriotza



Unai Iparragirre Quilez

Gela erabat ilundurik egongo zen, mahai gaineko argitxoak piztuta ez balitz. Nahiz eta Karlosekin egon, bakardade beldurgarria sentitzen zen, nahiz eta tatuajeak egiteko makinak soinuak atera, isiltasuna zen han nagusi, isiltasun sakona, norberak bakarrik entzun dezakeen isiltasuna, nahiz eta itxuraz ezer larririk ez egin, tentsio handia zen gelaxka haren jaun eta jabe. Karlosek ez zekien, gizon zahar misteriotsu hark bai, ordea, tatuaje hark, istorio bat zuen, hasiera bazuena, baina oraindik amaiera falta zitzaiona.

Bastianek hirurogeita hamar urte zituela hasi zen dena, bi alaba eta biloba-txo bat zituen. Igandea iritsi zen, zuen jantzirik dotoreena jantzi, autoa hartu eta baselizarantz abiatu zen. Iritsi eta den-dena aldatuta zegoela konturatu zen. Hasteko, baselizaren izkinetan XIII. mendeko egurrezko idoloak zeudela konturatu zen, banan-banan begiratu zien; Maria, Jesusen ama, Lukas, Markos, Juan, Mateo ebanjelistak eta Jesus zeuden. Igandero lez lehen ilarako eserlekuan eseritzera zihoala aldarearen eskuin aldean kristalezko kutxa bat ikusi zuen, bertan maindire bat gordetzen zen, kutxaren azpiko mahiaren izkina batean otoitz bat zegoen idatzirik; *"Oh! Ohial santua zure baitan Jesus gure jauna hartu zenuena, emaidazu jaunari eman zenion berotasun eta lasaitasuna"* Normaltasun osoz kutxatik bi pauso aldendu eta erreberentzi bat egin zion. Ondoren, bere eserlekuan eseri eta meza hasi zen. Apaiza aldarera bueltatu zen ardoa eta ogia eskuetan zituela, dena normala izango zen apaizak, ardoa, kaliz misteriotsu batean eraman izan ez balu. Kaliz harrigarria zen erditik gorako zatia urrezkoa zen eta harri bitxiz apaindutako azpiko alde eder bat zuen. Hala ere Bastianek axolagabekeria, ogia jan eta kaliz eder hartatik, bere etxeko edalontzi batetik edaten zuen patxada berberarekin edan zuen bedeinkatutako ardoa. Zeremonia bukatu eta Bastian etxera joan zen.

–Ezeerz. Esaten dudana zera da: baseliza erreformatzen gastatu beharko litzatekeen dirua beste gauzaren batean gastatzea hobe izango litzatekeela. Esaten zion Iraiak Ainhoari.

–Esadazu ba zertan, itxaron, a bai badakit, herriko bizilagun bakoitzari modako zapata batzuk erosteko proposa dezakegu, munduko herririk fashionena izan gaitzen. Iraiak otso aurpegiz begiratu zion Ainhoari, kristorenak botatzeko intentzioarekin baina une horretan etxeko atearen danbatekoa aditu zen. Iraiaren erretolikaz salbatu nahian Bastiani besarkatzen joan zen.

–Zer moduz joan da meza aita? –galdetu zion Ainhoak besarkada eman ondoren, aldentzen zen bitartean.

–Zer nahi duzu ba esatea maitea? Igandero bezala, lehenengo ilarako eserlekuan eseri naiz, nire atzean Joxe eta Marta eseri dira eta ondoko eserlekuan

inoiz ikusi ez dudan gizon bat, baina badakizu baten baten semea edo izango zen, gizon horren atzean... hortxe utzi zuen esaldia Iraiak besarkada indartsu bat eman baitzion.

–Ai ai zure aitaxo zahar hau puskatuko duzu horrela estutzen baldin baduzu.

–Indartsuagoa emango dizut ba, nire babarrunak jaten ez badituzu. –Eta horrelaxe joan ziren bazkaltzera Iraia, Ainhoa, Ainhoaren bi seme-alabak eta Bastian. Bazkaltzen zuten bitartean, Ainhoa, bi seme-alaben amak eta bi ahizpetan zaharrenak, udaletxean izandako bilera kontatu zion Bastiani:

–Dakizunez, gaur goizean, udaletxeko diruaren erabileraz bilera izan dugu.

–Jada ez nintzen gogoratzen, eta zer erabaki duzue?

–Jende gehiena baselizan erreformak egitekoaren aldekoa da, batek daki zenbat iraugo duen teilatu zatar horrek!

–Arazoa teilatua bada, zergatik ikusi ditut ba nik gaur...

–Nahikoa da, dirutza hori ezin dugu xahutu baselizaren teilatua konpontzen, ez al da Jainkoaren etxea, hainbeste mirari egiten dituenaren etxea, ba konpon dezala berak! –Esan zuen Iraiak amorrubiz.

–Uste dut ez dagoela atzera bueltarik, gaur goizean ikusi dudana udaletxeko diru guztiak gastatuko zituen eta- Erantzun zuen Bastianek lasai asko.

–Zer esan nahi duzu? –Iraiak beldur aurpegiz.

–Ba hori, gaur goizean, baselizan erromaniko garaiko eskulturak, kaliz eder bat eta oihal santua zeudela, baina harritzekoa ez duzue uste, horrek denak gure herritxo maitea zorretan utziko zuen- Ainhoa beldur aurpegiz eta Iraiak barre eginez zera esan zion:

–Aita, adinak gezurrak esateko gaitasuna gutxitu dizu. –Hala ere hortxe jarraitu zuen Bastianek berearekin.

–Joan zaitezte nahi baduzue eta ikus ezazue zuen begiekin. –Eta denak mutu geratu ziren Bastian siesta egitera altxatu zen arte. Orduan...

–Ainhoa, gure aita honek esan duenak ez du zentzurik, gaur izan dugu bilera eta oraindik ez da ezer argitu, nola da posible jadanik baseliza berriturik egotea?

–Baselizara joan eta ea zer gertatzen den galdetzera joan beharko dugu.

Horrelaxe platerak, sardeskak, koilareak eta sukaldea garbitu ondoren, autoa hartu eta baselizara joan ziren. Baselizan sartu eta den-dena betiko moduan ze-goela ikusi zuten, hasieran dezente beldurtu ziren, pixkanaka beldur hori haserre bilakatu zen eta azkenik zalantza. Apaizarengana Joan ziren eta aitak kontatutakoa azaldu zioten. Apaizak horrelakorik inoiz egon ez zela zioen eta aurreko sentimendu horiek utzitako arrastoekin batera itzuli ziren etxera. Etxera sartu eta egongelatik ahots bat entzun zuten.

–Bai ederrak zirela eskulturak, eta oihala? Harrigarria da horrelakorik gure herritxoan egotea ezta?

–Aita ez ezazu gutaz barre egin mesedez, ez duela batere graziarik –Esan zion Ainhoak nahasirik.

–Ez al zaizkizue ba gustatu?

–Badakigu dena zure gezurtxo bat izan dela, ulertzen ez duguna, ordea, gezurraren zergatia da; esango bazenigu, Ainhoa eta biok lasaiago geratuko ginateke, jadanik ez dakigu zer pentsatu-eta.

–Gezurtxoa diozu, jakin ezazu Bastian Etxebestek ez duela inoiz ere gezurrik esan, ezta esango ere. Bastian haserreturik altxatu eta ohera joan zen. Aldi berean, bi ahizpak nahasturik agurtu eta bakoitza bere etxera joan zen.

Horrelaxe aste osoa pasatu zen, Bastianek ikusi zuen guztia egiazkoa zela esaten jarraitzen zuen bitartean, Iraia eta Ainhoa egitan hasi ziren kezkatzen aitarengatik, berriro ere igandea iritsi zen arte. Bastian iganderoko ohiturari jarraituz, jantzirik dotoreena jantzi eta baselizara joan zen. Baselizan sartu eta berak espero bezala hantxe aurkitu zituen eskultura guztiak, kristalezko kutxatxoa ere hantxe zen. Bereztasunik gabeko meza hura bukatu eta Bastian etxera bueltatu zen. Igandero lez hantxe zeuden bere bi alabak bazkaria prestatua zutela. Mahi-an eseri eta tentsio ikaragarria nagusitu zen, Iraiak eta Ainhoak elkarri begiratzen zioten, behin eta berriz, bietako batek zerbait esan beharra zuela adieraziz, Bastian bitartean, ezer pasako ez balitz bezala jaten jarraitzen zuen, azkenean Iraiak galdetu zuen arte.

–Gaur ere han al zeuden figuritak, kaliza eta oihala?

–Bai noski. Iraiak eta Ainhoak elkarri begiratu ziren segituan eta oso txarra zen zerbait gertatzen ari zelakoaren ziurtasunak jo zituen biak bapatean.

–Ja! ni Benitoren gana noa berak gutxienez sinestuko didala.

–Zer? Zein da Benito? Galdetu zuen Iraiak izaturik.

–Esan dit bai, begiratu ere ez diozuela egiten. Gajoa bera niri konpainia egitera etorri, eta zuek horrela mespretxatzen duzue? Lotsa emango lidake niri.

Bastian altxatu eta joan egin zen. Iraiak eta Ainhoak zerbait egin behar zutela adostu zuten aitaren jokabidea normala ez zelako. Egun hori ere bukatu egin zen eta harekin batera Aita alabak agurtu eta bakoitza bere etxera joan zen.

Astean zehar, Iraia eta Ainhoa zer egin pentsatzen egon ziren eta azkenean hoberena aita medikuarengana eramatea izango zela erabaki zuten. Bazekiten, Bastianek, astoa baino burugogorragoa, ez zuela onartuko medikuarengana joatea. Horregatik, ohiko analisi batzuk egitera joan behar zutela esan zioten aitari, honek ezer ez zekiela erantzun zien baina azkenik gogo txarrez klinikara joatea onartu zuen. Probak egin ondoren, Bittor medikuak Ainhoari deitu eta Bastiani buruan tumore bat hazten ari zitzaion susmoa zeukatela esan zion, baina ez zela segurua ondo analizatu arte. Beldurturik eta isilik Ainhoak Bastian etxera eraman zuen, gero bera ere etxera joan zen eta Iraiari deitu zion medikuak emandako berriak kontatzeko.

Gauzak horrela bi aste pasatu ziren, bieran Bastianek baselizako objektu misteriotsuak ikusi zituela ziurtatu zuen eta ahizpek tumorearena egia izatearena geroz eta ziurtasun handiagoa zuten. Kasualitatez, Bastian mezatan zegoen igande batean, deitu zuen medikuak asaldaturik Bastian segituan ingresatu behar zela zion, tumorea nahiko aurreratua zuela eta arriskutsua izan zitekeela esanez. Hala ere ahizpek Bastian etxera etorri arte itxaron zuten, lasaitasuna transmititzeko saiakera batean baina ez zitzaien batere ondo atera Bastian etxera sartu bezain pronto.

–Aita, analisisiek gauza txar bat eman dute eta segituan joan behar dugu urgentzietara –esan zion Iraiak ahal zuen lasaitasun handiena transmitituz.

–Lehenago beste gauza bat esan behar dizuet, larria da oso larria nire begiekin ikusi dut.

–Ez aita lehenengoa zure osasuna da atso kontuak beste baterako utz itzazu. Orain arazo larri bat duzu –Ainhoak irmo.

Bastian beldurtzen hasi zen eta kotxerantz abiatu ziren ahizpak eta aita, hala ere kotxean sartu bezain pronto bota zuen dena Bastianek.

–Gaur eskulturak, kaliza eta oihala lapurtu egin dituzte.

–Baliteke aita, baliteke –erantzun zuen Ainhoak triste.

–Herrian eduki dugun gauzarik baliotsuena lapurtu eta baliteke ziztrin batekin erantzuten didazu? Hau albistegietan azaldu beharko litzatekeen gauza bat da.

–Lasai aurkituko dute-eta lapurra. Ainhoak, berriz, negar egiteko zorian.

–Baina nik bada, nik badakit nor den, autoan baselizatik etxerantz nindoala aterkia ahaztuta utzi dudala konturatu naiz, orduan, buelta erdia eman eta berriro ere hara abiatu naiz, eta sartu bezain laster ikusi dut aurrekoan esan nizuen gizon ezezagun hura oihal santua lapurtzen, eskulturak poltsa batean zituelarik, ez nau ikusi eta jarraitzea erabaki du...

Ez zuen bukatu esaldia, Iraiak negarrez, zuen inpotentzia guztiarekin, builaka hasi baitzitzaien.

–Aski da! Aski da! ez dut ezer gehiago entzun nahi, aita tumore bat duzu buruan, horrek existitzen ez diren gauzak ikusarazten dizkizu!

–Ez ez da egia ezetz Benito? –Bastianek zurbil.

–Ikusten duzu? Auto honetan ez dago Benitorik, ez zara konturatzen dena zeure imajinazioa dela?

Esaldia bukatzearekin batera, Bastian isildu eta ez zuen ezer gehiagorik esan. Isil-isilik klinikara iritsi eta Bastian uvi-ra eraman zuten. Bertan egon zen aste batez tumorea kontrolatua egon arte eta gero gela normal batera eraman zuten. Ainhoa eta Iraia bisitatzera joan ziren, baina Bastianek ez zituen bisitak onartu, beraz, ahizpak atsekabeturik etxera bueltatu ziren. Harrezkeroztik hiru egun pasa ziren eta ahizpentzat gauzak gaizki baldin bazeuden, are okerrago jarri

ziren, medikuak deitu baitzituzten Bastianek alde egin zuela esanez. Segituan deitu zuten poliziara eta beraiek ere Bastianen bila aritu ziren. Astebete geroago, poliziaren inspektoreak deitu zien Bastian erahilda aurkitu zutela eta ea autopsia egiteko baimena ematen zioten, Ainhoak baietz esan eta deia moztu zuen, baina segituan damutu zen seguru aski Bastian tumorearengatik hil zelako, gainera, Iraiari ez zitzaion batere gustatuko berari galdetu ez izana. Dena den, bi alabatxoak hartu eta Iraiaren etxera joan zen dena kontatzera. Iraiari kontatu zionean, honek ez zion jaramonik egin autopsiaren datuari eta segituan hasi zen negarrez eta erreduna bera zela esanez, gogorregia izan zela berarekin eta orain hilik bazegoen beraren errua zela. Ainhoak ahal izan zuen moduan kontsolatzen saiatu zen, baina bera ere ez zegoen kontsolatzeko lanetarako aitaren hilketaren errudun ere sentitzen zelako.

Atsekabeturik pasa zituzten forentseek gorpua eduki zuten bi asteak, hauek gorpua familiari itzuli ziotenean informe bat ere eman zieten, bertan Bastian bihotzekoak jota hil zela jartzen zuen, baita duela gutxiko kolpe batzuk zituela gorputz osoan eta horrez gain tatuaje berri bat zuela ere bazioen txostenak, hauxe: "Etxatze 4 2.ezk". Segituan konturatu ziren helbide bat zela eta toki horretara joan ziren. Iritsitakoan, portaleko atea irekita zegoen. Deitu gabe barrura sartu eta zuzenean bigarren pisura igo ziren, ezkerreko atea parez pare aurkitu zuten eta zer egin ez zekitela konturatu ziren, orduan Iraiak betiere Ainhoa baino inpulsiagoa, gogoz jo zuen atea eta irekita zegoela konturatu zen. Bertan gorputz bat zegoen, atzeko gelan, berriz, Bastianek hainbeste aldiz aipatutako eskulturak, kaliza eta maindire santua zeuden. Iraia eta Ainhoa zer egin jakin gabe geratu ziren, beraz, hantxe geratu ziren hiru orduz ezer esan gabe eta begiak malkoz betetzen zitzaizkien bitartean. Halako batean Iraia gorpuaren gainean notatxo bat zegoela konturatu zen. Hauxe zioen:

"Igande hartan aterkia ahaztu zitzaidan, bila joan nintzenean lapurra ikusi nuen eta jarraitzea erabaki nuen, etxe honetaraino, alegia. Etxera bueltatu nintzenean zuei dena kontatzeko irrikitan nengoen baina orduan eman zenidaten niri sustoa. Hala ere ospitalera sartzean ulertu nuen dena, ezetz asmatu nor den lapurra? Bai, nire medikua fidela zen. Berak lapurtu zuen dena. Ikusten denez, berari segika harrapatuko ninduen eta nire bizitzarekin akabatu nahiko zuen, dena den, ni aurreratu egin nintzaion.

Eta hementxe itxaron nion eta beno ikusten duzue nola bukatu den dena. Beste bat arte!

Zuen aitatxo maitea

Irakurtzen bukatu eta milaka galdera etorri zitzaizkien burura.

–Beste bat arte? Akaso, aitatxok ba al zekien hilko zela?

–Galdera ona da Iraia baina, nola da posible inork ikusi ez dituen objektu hauek hemen azaltzea?

–Gure aita erotuta zegoen?

–Zein zen orduan Benito?

–ZER PASADA DA?

Galdera hauek guztiek erantzunik gabe jarraitzen dute, batzuek dena asmatutako istorio bat dela pentsatzen dute; beste batzuk ordea, Bastian Jainkoaren seme misteriotsu bat zela zioten nahiz eta jende gehienak teoria hori ezeztatu. Dena den, Bastianek mezu polit bat utzi zigun hau da; ez dagoela hitza bezalako zientzia zehatzik.



Amodizko gutuna



Naroa Balda Garmendia

Eunon politte:

Zemuz zare?

Seguro oaiñe baten batekin hizketan ai zeala askoik ixildu gabe. Danai pel-mada earra ematen.

Ni hementxe, ba, betiko martxan. Bostak aldea esnatu, gosaldtu, ta ikullua jute naiz behiek jeztea. Hango lanak indakon auntzeta, nun dabilten ikustea ta geo batza, eguerdin bazkaltzeko zerbatten billa. Bueno normalen bazkarie jarrita eukitzet bai, gue Margarina jeixte naiz. Hantxe ibiltze naiz bazkalondon gue Arizekin jolasen, beti hor dabil be tratore ta kamionakin atzea ta aurea. Oain beste billoba txiki bat e badeu biden, Margarik neska espero baito maiatzeako. Izena eztaiz ba, enaiz ondo akordatzen, uaingo izen raro hoitako bat jarri behar die, bueno netzat behintzat oso raroa, Garoa o tankera hortako zerbatten. Garoa ez baño Naroa izangoa bai oain akordatzen ai naizela. Ta bestela ze esangoizut ba atxaldetan siesta txiki bat in ta jubilatuna jute naiz. Hantxe eoteie, etxekoneko Julian ta Anttonio, beti bezain zalamero, uaindio soltero seitzeue. Zeñek aguantau oik? Ene...

Bakizu etxetike pixkat atea in behar. Kontuatu naiz asko launtzeitela ingurun jendea eukitzek. Eztakizu zuk zer dan norbean pauson ekoa bakarrik aitzeta! Isiltasunek emate baito bakardaden neurrie, Pepita, isiltasunek.

Bestela ba hortxe urtek aurea dijoztela ta komerik, bateko tensioa, besteko azukrea, zartrosis pixkat e bai. Ardoa ta gozo guztik keinduizkit meiku nazkante horrek, txarrak diela esanda, nik gusto asko jate nittun ba... Ze kontakoizut pa eztakizunik.

Ai Pepita, asko botzatze zattut faltan. Zure algarak, zure bronkak, zure falta sentitzet. Aurrekon, hor hasi giñen gure alaba Ana Mari ta ni, garai bateko argazkik ikusten. Gaztetako argazki oik bakizu, umek txikik zienekok, gure biajek, gure luna de miela... Hoik bai garaiek, hor ateatze ziñen zu, zure ille luze horikin eleante eleante. Goatze zea ezta ze ibiltze giñen garai aitan, mendia jun, playa jun ta kontatu ezin dien gauzak itten or gustoa. Argazkike bazeren behin Loatzoa io giñenekok elurre itte zun oitako baten. Ze egualdi txarra ue. Han io giñen eskutik helduta, elkarri kontuk esaten. Ta han biden atea genittun argazki polittek ikusten attu nahiz. Arbola tarten ateratako argazki eleante haik. Ta gero goatze altzea berakon, elurre hasi zunen, han ibili giñenen komeritan Loatzotik bera jeisten? Ta etxeko portalea allatu giñenen eman ziazun muxu goxo hue? Hue bai ezin haztu. Holako muxu goxo ugari emate zizkiazun gaztek giñenen.

Ai, Pepita, oain oroitzapen haik goatuta parrez haste naiz, baño atzo rato txarra pasa nun, argazkik ikusten hai giñela nearrez hasi nitzenen, zutaz akordauta. Ana Marik hala galdetu zian, zer pasatze zitzaiten ola jartzeko. Ta nik nola esan burutik pasatzenai zitzaitena. Zure falta sentitze nula, zure kariñoa falta zitzaitela. Zure algarak botatzettutela faltan, ta tarteka zure bullak. Nola esan zure ondón esnatu nai nula eunero, zure ondón lo in ta begik irikitze nittunen nere aldamenen zu ikustea nahi nula. Nik ezer etzitzaitela pasatzen esan nion malkok sekatzan ai nitzen bitarten. Erotzen hasita naola pentsaukozon, ta arrazoa igual izango. Ze bestela zertan ai naiz karta hau eskribitzen noa biali eztakitela. Kartan zure izena jarri ta igual karterok jakingou noa eaman. Hor eongozea bai goran, gu bijilatzen, beti izan baizea kuxkuxera xamarra, Pepita. Kuxkuxera zoragarrie, behintzat dudik be. Ba oixe jarrikoet ba kartan. Pepita Garmendia. Zerue. Ta depaso muxu bat bialikoizut kartakin batea. Portalen aurren eman ziazun muxu goxo oitako bat. Lasai Pepita, aurki naiz or ta.

Inoiz aztu ezin zattuna ta asko botatzezattuna faltan, Xatur.